



OLLAKINTA NATUR INGURUAN

BASO ESKOLA

NORK HARTZEN DU PARTE?

Gure ikastetxean haur hezkuntzan zein lehen hezkuntzako lehen zikloan egiten dugu Baso eskola.

ZERGATIK BASO ESKOLA?

Proiektu honen ardatz nagusia, natura inguruneaz disfrutatzeaz gain, komunikazio gaitasunari garrantzia ematea da. Izan ere, euskara izango da gure komunikazio hizkuntz nagusia eta hizkuntza honetan jasoko ditugu jakintza berriak.

NOLAKO DA GURE NATUR INGURUNEA?

Gure ikastetxea, Irungo Landetxa auzoan kokatua dagoela kontuan izanik, Ollakinta ingururan joaten gara ikasleekin. Natur inguru hori ikastetxetik nahiko hurbil kokatzen delako.

Ollakintako inguruak natur eskaintza anitza du: baso eremu zabala, zuhaitz mota ezberdinez osatua, ibaia eta putzuak, gaztaindiak, etab. Ikasleekin joateko eremu paregabea da, batez ere, ibilbide ezberdinak egiteko aukera ematen duelako, jolas eremu ezberdinak eskaintzen dituelako edota naturarekin lotutako ikakuntza ezberdinak lantzeko aukera ezin hobea eskaintzen duelako.

HELBURUAK:

- Ollakintako espazio eta baliabideak kontuan izanik hizkuntza lantzea.
- Ikasleen hiztegi berdea zabaltzea eta erabiltzea.
- Baso Eskolako bizipenetatik abiatuz idazketa-irakurketa prozesuan murgiltzea eta garatzea.
- Bertan jasotako gertaerak familiekin partekatzea eta azken hauen inplikazioa sustatzea.
- Jolas librean arituz, Euskara komunikaziorako eta harremantzeko tresna eraginkor gisa erabiltzea.
- Ongi pasatzea. Naturaz gozatzea eta natura maitatzea.
- Kirola eta ohitura osasuntsuak sustatzea.